

Irakurketaren funtsezko garun-egiturak eta funtzioak argitu dituzte

Neurozientzialariek lehendik ezagutzen zuten irakurketarekin lotutako eremu nagusia, baina ez zegoen garbi haren egitura eta funtzionamendua. Orain, eremu hori bi zatitan banatzen dela argitu dute BCBL kognizioa, garuna eta hizkuntzari buruzko ikerketa-zentroan.



ARG.: Jabego publikoa.

Kepa Paz-Alonso BCBL zentroko ikertzailearen arabera, garun osoak hartzen du parte irakurketan, baina informazioaren sarbidearen gunea (kortex okzipito-tenporal bentrala) funtsezkoa da: "Hain zuzen eremu hori kaltetuta duten pertsonak alexia dute, ez dira irakurtzeko gai".


Azken 15 urtetan eremu horri buruzko ikerketa ugari argitaratu diren arren, ez zegoen ikuspegi bateraturik. Orain ikusi dute zergatik. "Gaur egun dauden neuroiruditeriako teknika aurreratuenak erabilia, ikusi dugu eremu hori bitan banatuta dagoela: bat pertzepzioarekin erlazionatuta, eta bestea, arlo lexiko-semantikoarekin. Hau da, funtzioak egitura anatomiko desberdinetan daude banatuta", azaldu du Paz-Alonsok.

PNAS aldizkarian argitaratu dute ikerketa, eta irakurketaren arloan eragina izango duela uste dute; esaterako, dislexian. ●

Neandertalen toraxak forma desberdina zuen

Neandertal heldu baten toraxa birtualki berreraikita, ondorioztatu dute sapiensaren toraxaren antzeko tamaina zuela, baina forma desberdina. Hala, neandertalen arnasketa-mekanika ere zertxobait desberdina izango zela iradoki dute.

EHuko ikertzaile Asier Gómez Olivenciak eta kideek aurkitu den toraxik osoena aztertu eta berreraiki dute; Kebarako (Israel) aztarnategiko Kebara 2 neandertal ar helduarena. "Bizkarrezurrak saiheztuzurekin duen finkapenak bizkarrezur egonkorragoa iradokitzen du. Horrekin batera, toraxa zabalagoa da beheko aldean", azaldu du Mikel Arlegi EHuko ikertzaileak. Hala, diafragma ere zabalagoa izango litzatekeela ondorioztatu dute ikertzaileek, eta iradoki dute arnasketa sapiensetan baino lotuago egongo litzatekeela diafragmari, eta gutxiago kutxa torazikoaren hedapenari. Bestalde, kalkulatu dute arnasa hartzean bolumen handiagoa har zezaketela, toraxaren forma horri esker. ●



ARG.: A. Gómez Olivencia, A. Barash and E. Been.